BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

208

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 17koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena; honen bidez jendaurrean jartzen dira Urnietako udalerrian (Gipuzkoa), hondakin sanitarioak kudeatzeko instalazioa egiteko Euskalduna de Gestión de Residuos, S.L.k aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 21eko 22/2011 Legeak xedatutakoaren arabera hondakinen kudeaketa jarduerek Autonomia Erkidegoko ingurumen organoaren baimena behar dute.

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluak ezarritakoari jarraituz, proiektu publikoek zein pribatuek, obrak, instalazioak edo aipatutako I. eranskinean jasotako edozein jarduera burutzeko, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar dute, legean adierazten den moduan.

Ingurumen-organo honetan izapideak hasi dira, Urnietako udalerrian (Gipuzkoa), hondakin sanitarioak kudeatzeko instalazioa egiteko Euskalduna de Gestión de Residuos, S.L.k aurkeztutako proiektuaren hondakin arriskutsuen baimena lortzeko eta proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko.

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak eta xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak aurreikusten duten prozeduraren arabera, jendaurrean jarri behar da ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Organo honek du ebazpen hau emateko eskumena, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren arabera.

Aintzat hartzeko arauak: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra; 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 1131/1988 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, hura betearazteko Erregelamendua onartzen duena; 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenari buruzkoa; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har nahiz bereziki ezartzekoa den gainerako araudia.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Urnietako udalerrian Euskalduna de Gestión de Residuos, S.L.k sustatzen duen hondakin sanitarioak kudeatzeko instalazioa egiteko proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan egongo dira eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Gipuzkoako Lurralde Zerbitzuan (Infanta Cristina, 11-Villa Begoña, Donostia-San Sebastián).

Era berean, adierazitako dokumentazioa herritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako espedientea Urnietako Udalari bidaliko zaio, jendaurrean jartzeko epean erakuts dezan.

Era berean, proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean (https://euskadi.net) izango dira, herritarrek errazago eskura ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 17a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.